

TEKNOLOGIA IRISGARRIEN IKERKETA PROIEKTUETARAKO INDRA-UNIVERSIA FUNDAZIOAREN LAGUNTZAK (2016)

Indrak eta UNIVERSIA FUNDAZIOAK 3 laguntza deitu dituzte teknologia irisgarriak berritu eta garatzeko proiektuetarako. Proiektuek helburu izan behar dute pertsona desgaituek erabil dezaketen edo pertsona desgaituentzat erabil daitekeen edozein produktu (gailuak, ekipoak, tresnak eta softwarea barne direla) gauzatzea.

Onuradunak:

Espainiako Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztiak, eta proiektua behar bezala gauatzeko behar besteko gaitasun teknikoa egiaztatu behar dute esperientziaren, pertsonalaren eta baliabide teknikoen arloan.

Laguntzen ezaugarriak:

Aurkeztuko den proiektua pertsona desgaituek erabil dezaketen edo pertsona desgaituentzat erabil daitekeen edozein produktu (gailuak, ekipoak, tresnak eta softwarea barne direla) gauatzeko izango da. Eta, besteak beste, izango da

- ekintza edo jardueretan parte hartzea errazteko, edo mugei edo murrizketei aurrea hartzeko.
- gorputzaren funtzioak/egiturak edo ekintzak babesteko, entrenatzeko, neurtzeko edo ordezkatzeko.
- pertsona desgaituak enpleguaren munduan sartzea, eta horiek enplegua mantendu eta hobetzea sustatzeko.

Gehienez 3 laguntza emango zaizkie unibertsitate ezberdinetako erakundeen hiru proiekturi. Laguntza bakoitza 24.000 eurokoa izango da. Proiektuen iraupena 12 hilabetekoa izango da.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira, honako esteka honen bitartez: <http://www.tecnologiasaccesibles.com/es/base-proyectos-investigacion>, eta "Izena emateko orria" gehituko zaio, eta bertan garatuko da proiektuaren memoria.

Eskaerak aurkezteko epea: 2016ko urriaren 10etik azaroaren 15era bitartean (14:00ak arte, penintsulako ordua).

Barne prozedura:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	TRAMITEA
2016/11/02	Ikertzaile nagusia	Proposatutako ikertaldea berrikusteko "I Eranskina" bidali helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus
2016/11/10	Ikertzaile nagusia	"Izena emateko orria" (proiektuaren memoria) bidali helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus .
2016/11/14	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	"Izena emateko orria" itzuli, Unibertsitatearen Lege Ordezkarriak eskaera onartzen duela jasotzen duen UPV/EHUren "Gaitasun tekniko eta teknologikoaren egiaztatzea" txertatuta (memoriaren azken atala).
2016/11/15 (14:00ak)	Ikertzaile nagusia	Eskaera aurkeztu esteka honen bitartez: http://www.tecnologiasaccesibles.com/concurso

Informazio gehiago:

<http://www.tecnologiasaccesibles.com/es/base-proyectos-investigacion>

Harremanetan jartzeko:

- **Universia Fundazioa/INDRA:** 91 480 50 00
- **Ikerketaren arloko Errektoreordetza:** convocatorias.dgi@ehu.eus / 94 601 8008